



# 2016

NAFARROAKO UNIBERTSITATEEN \*UDAKO IKASTAROAK  
CURSOS DE VERANO\* DE LAS UNIVERSIDADES NAVARRAS

UNED

PAMPLONA

## ESPAZIO BAT, HIZKUNTZA ANITZ: ONDAREA ALA ZAMA?

Iruñea, 2016ko irailaren 19 eta 20.  
Kondestablearen Jauregian (Kale Nagusia, 2).

ANTOLATZAILEAK:



ATENEO  
NAVARRO



NAFAR  
ATENEOA

FINANTZATZAILEA:



# ESPAZIO BAT HIZKUNTZA ANITZ: ONDAREA ALA ZAMA?

## NAFARROAKO UNIBERTSITATEEN UDAKO IKASTAROAK 2016

Iruñea, 2016ko irailaren 19 eta 20.  
Kondestablearen Jauregian (Kale Nagusia 2)

## Zuzendaria

Ekaitz Santazilia Salvador jauna  
*Nafarroako Unibertsitate Publikoa (UPNA/NUP)-Nafar Ateneoa*

## Laburpena

Europar asko dira gizaki eta gizarte eleaniztunak, hizkuntza bat baino gehiago darabiltenak. Nafarroa eta nafarrak ez dira horretan salbuespen, eta euskara, gaztelania, ingelesa, frantsesa edo bestelako hizkuntzak espazio berean bizi dira gaur egun gurean ere.

Eleaniztasun hori zama da? aberastasuna? ondarea? Zenbat hizkuntzarentzat dago espazioa? Espazio berezia behar dute hizkuntza horiek? bakoitzak berea? denek berbera?

Ikastaroan galdera horiei ekingo diegu. Horretarako bi "espazio" mota zehaztu ditugu: gizartea batetik, eta gizakia bestetik; espazio soziologikoa eta neurologikoa. Lehen espazioa gizarte eleaniztuna, kalea eta eskola da, eta horietan hizkuntzek izan beharreko tratamenduari begiratuko diogu. Bestalde, bigarren espazioa, giza burmuina, hiztunaren baitan dago. Hizkuntza gizakien garunean non kokatzen den eta nola funtzionatzen duen azalduko dugu eta burmuinak bi hizkuntza edo gehiago kudeatu behar dituen nola jokatzeko duen erakutsi.

## Matrikula

- > Epea: 2016/09/16. Ikasle kopuru mugatua. Inskripzioa ordenaren arabera.
- > Prezioa: 15€
- > Matrikula on-line: [www.unedpamplona.es/matricula](http://www.unedpamplona.es/matricula)
- > Bertaratze ziurtagiria banatuko da.

## Informazio gehiago

### www

[unedpamplona.es](http://unedpamplona.es)

[cursosdeverano.navarra.es](http://cursosdeverano.navarra.es)

[ateneonavarro.es](http://ateneonavarro.es)



[@unedpamplona](https://twitter.com/unedpamplona)

[@ateneonavarro](https://twitter.com/ateneonavarro)

[@educacion\\_na](https://twitter.com/educacion_na)



[facebook.com/unedpamplona](https://facebook.com/unedpamplona)

[facebook.com/AteneoNavarro](https://facebook.com/AteneoNavarro)

## Programa

### > Astelehena, irailak 19.

17:00 - 17:15.

**Harrera, material banatzea eta aurkezpena.**

17:15 - 18:45.

**Hizkuntzen kudeaketa iraunkorra hezkuntza eleaniztunean.**

Jasone Zenotz doktorea. UPV/EHUko katedraduna.

18:45 - 19:15. **Atsedenaaldia.**

19:15 - 20:45.

**Euskaldun eta eleaniztun hazi egungo Nafarroan.**

Paula Kasares doktorea. UPNA/NUPEko irakaslea.

### > Asteartea, irailak 20.

17:00 - 17:15.

**Harrera, material banatzea eta aurkezpena.**

17:15 - 18:45.

**Hizkuntzak burmuinean: noiz, non, nola?**

Miren Itziar Laka doktorea. UPV/EHUko katedraduna.

18:45 - 19:15. **Atsedenaaldia.**

19:15 - 20:45.

**Elebitasuna: burmuinarentzako zama ala trebakuntza ariketa?**

Mikel Santesteban doktorea. UPV/EHUko ikertzailea.

## Hitzaldien laburpenak eta hizlarien profil akademikoa

> Astelehena, irailak 19.

### **Hizkuntzen kudeaketa iraunkorra hezkuntza eleaniztunean**

Jasone Zenotz. Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)

Gaur egun euskararen irakaskuntzak eta euskaraz egiten den irakaskuntzak erronka berriak dituzte. Hitzaldi honetan erronka horiek aztertuko dira hizkuntzaren kudeaketa iraunkorraren beharra azpimarratuz. Horretarako "Fokapen eleaniztuna" ren eredua proposatuko da. Fokapen honek hiztun eleaniztuna, hizkuntza errepertorio osoa eta testuinguru soziala kontuan hartzen ditu. Honekin lotuta dagoen "translanguaging" kontzeptua ere aztertuko da, gure artean gauzatzen ari den proiektu baten berri emanez. Proiektu horren helburua ikasleen gaitasun eleaniztuna hobetzea eta ikasleen kontzientzia eleaniztuna eta kulturartekoa bizkortzea da. Proiektuan, hizkuntzen tratamendu integralaren beharra eta hizkuntzen arteko loturak areagotzeko aukerak erakusten dira.

#### **Profil akademikoa**

Jasone Zenotz Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV/EHU) Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultateko katedraduna da eta Eleaniztasunaren Nazioarteko Elkartearen (International Association of Multilingualism) lehendakaria. Ikerketa, hezkuntza eleaniztun eta bigarren zein hirugarren hizkuntzen jabeakentzari buruz egiten du. Artikulu ugari eta zenbait liburu argitaratu ditu, eta nazioarteko kongresu askotan aurkeztu ditu bere ikerketaren emaitzak.

### **Euskaldun eta eleaniztun hazi egungo Nafarroan**

Paula Kasares. Nafarroako Unibertsitate Publikoa (UPNA/NUP)

Egungo komunikazio esparru globalizatueta hizkuntza txikiek, iraunen badute, beren tokia behar dute hizkuntza handien ondoan. Gurean ere, euskarak, biziko bada, bere tokia behar du gaztelaniaren, frantsesaren, ingelesaren eta beste hizkuntza hegemonikoen aiekan. Hitzaldian, hausnarketa horretatik abiatuz, Nafarroako egungo hizkuntza errealitatea hartuko dugu aztergai: gizartean jokatzeko duten hizkuntzak, mintzairek betetzen dituzten espazio sozio funtzionalak eta euskarak behar duen tokia. Haur nafarrak euskaldun (eta eleaniztun) hazteko aukerak eta premiak aztertuko ditugu.

#### **Profil akademikoa**

Paula Kasares Nafarroako Unibertsitate Publikoko (UPNA/NUP) irakaslea da. Euskal Filologian zein Gizarte eta Kultura Antropologian lizentziatu zen eta Hizkuntza Plangintzan eta Antropologian graduondoko ikasketak egin zituen. Ikerketa lana soziolinguistikan eta hizkuntza antropologian jorratu du. Doktore tesian haur nafarrak euskal hiztun bilakatzeko prozesua aztertu zuen. Egundak dituzten ikergaiak: haurren hizkuntza sozializazioa, elebitasun goiztiarra eta familia eleaniztunen estrategiak.

> Asteartea, irailak 20.

### **Hizkuntzak burmuinean: noiz, non, nola?**

Miren Itziar Laka. Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)

Hizkuntzak geure buruetan bizi dira, geure burmuinek sortzen dituzte. Ikastaro honek helburu nagusi bi ditu: batetik, euskararen prozesamenduz egun dugun ezagutza aurkeztu eta eztabaidatuko dugu; bestetik, elebitasunak burmuinean duen eraginari buruzko gai nagusiak jorratuko ditugu, euskara/gaztelania elebidunei arreta berezia emanez. Euskarari eta euskaldunei loturiko gai hauekin batera, hizkuntzaren izaera kognitiboan eta prozesamenduan egun ardatz diren zenbait gai nagusi aztertuko ditugu, hala nola hizkuntzaren jabekuntza, afasia, jaiotzetiko hizkuntza eta jaiotzetikoa ez den hizkuntzaren prozesamenduan diren desberdintasunak, gramatika ezberdinak nola prozesatzen diren, eta prozesamenduak hizkuntzaren forman duen eragina.

#### **Profil akademikoa**

Miren Itziar Laka Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak saileko katedraduna da (UPV/EHU), eta Gogo Elebiduna ikerketa taldearen zuzendaria. 1990ean doktoratua Massachusetts Institute of Technology-n (MIT). 1990-1995 artean, New Yorkeko University of Rochester-en irakasle. Viena, Utrecht, Napoles eta Río de Janeiroko unibertsitateetan izan da irakasle gonbidatua, eta ikertzaile gonbidatua Netherlands Institute for Advanced Study in Humanities (NIAS), eta Instituto Universitario Ortega y Gasset-en, beste batzuen artean. Bere ikerketak hizkuntzalaritza teorikoa eta psiko/neurolingüistikako metodo esperimentalak uztartzen ditu, hizkuntzaren irudikapen eta prozesamendu neurala argitzeko, batik bat sintaxia eta elebitasunaren inguruan.

### **Elebitasuna: burmuinarentzako zama ala trebakuntza ariketa?**

Mikel Santesteban. Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)

Elebitasuna (eta eleaniztasuna) gure burmuinarentzako erronka bat izan liteke, baina baita burmuina trebatzeko ariketa bat ere. Hitzun elebidun baten burmuinak bi hizkuntza ikasi, irudikatu eta prozesatu behar ditu. Beraz, burmuin elebidunean bi hizkuntza ezberdinetako soinuak, hitzak eta egiturak bizi dira, eta hitzun elebidunak bi hizkuntzak nahastu gabe erabiltzen ikasi behar du. Azken urteetako ikerketek iradokitzen dutenaren arabera, bi hizkuntza kudeatu behar izatea burmuinarentzako onuragarria izan daitekeen ariketa fisiko baten antzekoa da. Hitzaldi honetan hitzun elebidunek euren bi hizkuntzen erabilera kudeatzeko erabiltzen dituzten mekanismo kognitiboen inguruan hitz egingo dugu. Onuragarria al da eguneroko burmuin ariketa elebidun hau gure burmuinarentzako? Nola eragiten du esperientzia elebidunak gure burmuinean, eta onuragarria al da burmuinaren zahartze prozesuak atzeratzeko?

#### **Profil akademikoa**

Mikel Santesteban Ramón y Cajal ikerlaria da Gogo Elebiduna ikerketa taldean (UPV/EHU). Euskal Filologian (UPV/EHU) lizentziatua, eta psikolinguistikan doktorea (Universitat de Barcelona). University of Edinburgh-en doktore-ondoko ikerlari bezala lan egin ostean, 2010az geroztik UPV/EHUko Gogo Elebiduna ikertaldean dihardu bere ikerketa garatzen. Hitzun elebidunen ekoizpen prozesuak eta elebidunen hizkuntza aukeraketa mekanismoak ikertzen ditu.